# tXIotxioka

EliralE konpainia – Pantxika Telleria



**Binakako lan koreografiko musikatua**
**Publiko guztientzat 3 urtetik**
**Iraupena : 35 minutu**

2026ko sorkuntza @compagnieeliralekonpainia

**Goxoki** isiltzeko gomita.
Nola kontenplazioa idekitzen den,
Nola gorputzak kabia ematen dion hizkuntzari,
**Haikuen** hizkuntza poetikoa gara dadin.

Xori kumeak mokoz moko elikatzen diren bezala
("txiotxioka"), arteak ere izpiritua elikatzen du.
**Zaintzaz** eta **transmisioz** beteriko keinu horren bidez,
arte topaketak **baliabide sentikorrak** eskaintzen
dizkio bakoitzari, handitzeko, bere hegaldia abiatzeko,
munduari idekitzeko eta bestearengana joateko.

Euskaratuak diren **Japongo** herriko haiku zaharrek,
aho korapiloek zotz egiteko formulek eta hitz jokoek
**tXIotxioka** emanaldiaren ahozko literaturaren
errepertorioa osatzen dute.

Hitza da iturria eta emaileak **dantzari** hitztunak dira,
**musikari** laguntzailearen konplizitatearekin.

Gorputz-mugimenduak garatuz, eta unibertso **sonoro**
sutil bat proposatuz obrak ikuslegoa lasaitasunean
**murgildu** nahi du batez ere.

# GUNE BATETAN UNE BAT FINKATZEKO PARADA : ORAINALDIAREN OPARI.

Ikuslegoaren arnas ezberdinekin bat egitendu orduan emanaldiaren garapenak, haikuek bixtan da materiarekin izan dezaketen aldea ahantzi gabe.

Orokorki emanaldia harturik, baita ere eszenografiarentzat, materialen bilketan adibidez, arte povera-ren hautua egina izan da, birziklatzea argiki hautatuz adibidez.
Natura goraipatzen duen margo bat zeharkatzen dute dantzariek, bueltan eszenografiak mundu kokapen bat ematen dielarik protagonistei.
Gune batetan une bat finkatzeko parada: Orainaldiaren opari.
Ikusgarriari so dago musikaria publiko erdian kokaturik bere gitarrarekin, emanaldiaren bidea ikuslego bakoitzari bidea eginez.

# Elirale - Pantxika Telleria konpainia

Donibane Lohizunen sortua, Pantxika Telleria euskal dantza tradizionalaren munduan murgildu zen txikitatik. Nerabezaroan, Pariseko Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazionalean sartu zen. Urte batzuk berantago, Bordeleko CAFEDEM-en Dantza Irakasle gisa estatuko diploma lortu zuen, gero 2001ean sortu zuen **EliralE.**

Konpainia pixkanaka hazten joan zen, besteak beste Eusko Jaurlaritzaren Koreografia Lehiaketan lehen saria irabaziz, eta 2017an Madrilgo Certamen Coreográfico lehiaketan ere bai. Ondoren, Euskal Herri osoan zehar eta nazio mailan bira erregularrak egin ditu *Ninika*, *Xihiko* edo *Artha* bezalako proposamenekin.

Denborarekin, lurraldearekiko harremanak sendotu ditu, bai beste konpainia batzuekin lankidetzan (Kukai Dantza, Lagunarte, ...), bai eskolen eta bertako biztanleen bidez. 25 urteko esperientziarekin, konpainiak publiko gaztearekin duen lotura mantentzen du, ohiko sorkuntza berriak ekoiztuz (*Ka Dira*, *Mamuka*, ...), eta aldi berean pieza garaikideagoak eskaintzen jarraitzen du, hala nola *O!* eta *Fuga!,* dantzari gazteen profesionalizazioa sustatuz.

Bere gogoeten eta ekimen aitzindarien bidez, EliralE dantza konpainia bat baino gehiago da: bere lurraldeko herritarrekin kulturalki konprometitutako eragile bihurtu da.

Bere bitartekaritza eta sentsibilizazio arloko esperientziari esker, koreografoak dantza artea sustatzen jarraitzen du, kirolariekin, pazienteekin eta osasun arloko profesionalekin lotura bereziak sortuz. Dantza demokratizatzea, kontzientzia piztea eta gorputzaren eta mugimenduaren ulermena sakontzea dira konpainiaren sorreratik lantzen dituen erronkak.

Elirale
konpainia - compagnie
Compagnie Elirale - Pantxika Telleria Konpainia

# BANAKETA

**Taula eramailea :**
Pantxika Telleria

**Interpreteak :**
Maddi Zubeldia,
Jon Vernier Bareigts , Joana Ouret (txandaka)

**Musikaria :**
Paxkal Irigoyen

**Kanpoko begirada :**
Agurtzane Intxaurraga - Hika Teatroa

**Diseinu teknikoa :**
Elirale Konpainia

**Eszenografia & Osagarriak :**
Amane Apalategui-Telleria
Lola Unhassobiscay

**Argazkiak :**
Stéphane Bellocq

**Marrazkiak :**
Amane Apalategui-Telleria

**Ikus-entzunezko eta ekoizpen grafikoa :**
Lucia Palli

# HEDAPENAREN EGUTEGIA

| | |
|---|---|
| 2025eko martxoaren, 3tik 7ra | Biteri Kultur Etxea, **Hernani** |
| 2025eko maiatzaren, 12tik 15era | **Azkaingo** Eskola publikoa, Ikastola eta Ste-Marie Eskola |
| 2025eko maiatzaren, 16an | St-François-Xavier Eskola, **Urruña** |
| 2025eko ekainaren, 8an | Elealai Festibala, **Urruña** |
| 2026eko otsailean | Sorkuntza-egonaldi, egonaldiaren aurkezpen publikoa eta ikusmen urritasuna duten pertsonekin tailerra, **Senpereko** Larreko Kulturgunea, Euskal Herria Hirigune Elkargoaren laguntzarekin. |
| 2026eko apirilean | Sorkuntza-egonaldi aurkezpen publikoekin, Larreko Kulturgunean, **Senpere**. |

Hika Teatroaren Agurtzane Intxaurraga kanpoko ikuspegi gisa esku hartzen du, partekatzen dugun Europako POCTEFA LOTU proiektuaren baitan.

| | |
|---|---|
| 2026eko ekainaren, 7an | Elealai Festibala, **Urruña** |
| 2026ko urriaren, 6an | Harriondoa kultur etxea, **Lesaka** (Nafarroa) |
| 2026ko azaroaren, 20 & 22an | Lurberri gela, **Sara** |
| 2026ko azaroaren, 23an | **Bidaxune** |
| 2026ko azaroaren, 24 & 25an | Bilbalka Gunea, **Donapaleu** |
| 2026ko azaroaren, 26an | **Gotaine-Iribarne** |
| 2027ko urtarrilaren, 14 & 15an | Harri Xuri, **Luhuso** |

# ITURRI EZBERNEDINETATIK BILATUTAKO TESTUAK

**Ibon Urribarrik** itzuli dituen **Bashô, Buson, Issa eta Shiki** XVII. eta XVIII. mendeko japongo haikulariak

Kirun-karun pek liburua
**Auteurs :** Jon Suarez – Txakur gorria
Juan Kruz Igerabide
Amane Apalategui -Telleria

**Argitaletxea :** Txalaparta+Xo

# BEHAR TEKNIKOAK

**ESPAZIOA : AZALERA OPTIMOA**

(ikusleak barne): 14m zabal x 12m sakon



LILILI LUE
LUE LO-LO LI
LILI LO-LO LUE LO.

IHINTZ-MUNDUA,
IHINTZ MUNDUA DA
HAU
ETA HALA (E)RE...

URMAEL ZAHAR ;
IGELAK JAUZI DIRA
URAREN HOTSA.













# LANKIDETZAK

Azkaingo Herriko etxearen kultur zerbitzua

Urruñako Herriko etxearen euskara zerbitzua

Hernaniko udalako kultur zerbitzua

Euskal Herria Hirigune Elkargoa

# LAGUNTZAILEAK

DRAC Nouvelle-Aquitaine (Kultura Ministerioak konbentzionaturik)

Nouvelle-Aquitaine Eskualdeko Kontseilua

Pirinio-Atlantikoetako departamendua (64)

Euskal Herria Hirigune Elkargoa

Senpereko Herriko etxea (Iparralde)

LOTU, Europako Interreg-Poctefa proiektua

# HARREMANA

**Christian Aldaco – Ekoizpen arduraduna**
**T : +33** 7.69.89.65.54

**elirale@elirale.org**
EliralE-Pantxika Telleria Konpainia
Larreko Kulturgunea
64310 Senpere
www.elirale.org

**Siret:**43902603000049-**APE:**9001Z
**N° licence entrepreneur du spectacle:** LR-25-002583
**1901 lege elkartea, merkataritza-zergetatik salbuetsita**